



SAN JOANEKO ERRONDA

Dios te salbe, ongi etorri
gabon Jainkoa diela
legearekin kunpli dezagun
aita San Juanen bezperan.

Festa giroa nagusitu da
San Juan jaiaren bezperan
dantza, musika eta parranda
izango dira aukeran.

Ea Hernani, irten kalera
beste urtetan bezala
eta kezkatzen zaituzten penak
suak kixkali ditzala.

SAN JUAN ZORTZIKOA

Jesusen amaren iloba txiki
Jesusen beraren lehengusu
jaio zinan eta jaiotzekotan
inor berdinikan ez dezu.

TA SAN JUAN
BETI ZAITUT GOGOAN (bis)

Hernani herriak zaindari zaitu
Jaungoikoak daki noiztikan
zuk zaindu gaitzazu Hernaniarrok
bizi gera zero goitikan.

TA SAN JUAN
BETI ZAITUT GOGOAN (bis)

HERNANIKO MARTXA

Muino baten gainean
sendo eta dotore
Urumea ertzean
da zure lekua. (bis)

Gora ta gora herria
gora gure Hernani
toki zoragarria
beti maitea. (bis)

Leial beldurgabea
zorioneko lurra
historiaz betea
zure ondarean. (bis)

DIANA

Goazen mendirik mendi
euskaldun gazteak
goazen aldapa gora
mendigoizaleak
haize osasuntsuaz
bizitza indartzea
aberri guztiari
agurra egitera.

Goazen goazen
guztioak kalera
San Juan eguna
denok ospatzera
goiz kantu alai
eder honekin
Hernani herrian
gozatzera